



13. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida
Alarma Egoeraren 13. eguna. 2020ko martxoaren 28^a, larunbata.

Ostirala hilak 27ko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Oraingoan, pozik sentitzen gara Udaletxeak larrialdietarako beharrezkoak diren baliabideak kudeatzeko aurrera daraman ekintzarekin, baita Diputazioaren laguntzarekin ere. Neurri hauek batzuetan mantsoegi hartzen diren arren, edota beste batzuetan korrika norabide argirik izan gabe, oraingoan hartutako neurri garrantzitsuenari Orioko aterpetxea irekitzea izan da. Bertara Hotzaldin zeuden pertsonak joan dira (Caritas-ek kudeatzen zuen espazioa), eta beraiek jakinarazi diguten arabera, lasaitasun eta ongizate giroa nagusitu da pertsona hauen egoeratan. Ondorioz, aproposak ziren baliabideei buruzko gure irizpideak zuzenak direla uste dugu, eta **neurri hau bertan gera ez dadin espero dugu**, oraindik pertsona askoren egoera ez delako egonkorra ez aproposa.

ELIKAGAIAK. Elikagaiei dagokien ere, Udaletxea neurriak hartzen hasi da. Azken asteetan boluntarioen laguntza guztiz beharrezkoa izan den arren eta pertsona hauen elikagai iturri nagusia, atzo Udaletxeak SMUS zerbitzua egonkortu zuen Harrera Sarea iristen ez den pertsonen elikagaiak banatzeko. Gure ustez, elikagaien beharra duten pertsonekin lan egiten hasteko modu bat izan liteke, Sareak lan egiten duen eta kalean bizi diren pertsonak gehienek baitute behar hau.

Komunikabideak. *Hirutxuloko Hitza* aldizkarian artikulua

<https://irutxulo.hitza.eus/2020/03/27/atano-frontoia-etxegabeentzako-aterpe-bilakatu-dute/>.

12. Buletina sareetara eta komunikabideetara zabaldu da. Egunero buletinei dagozkien iritzi on gehiago jasotzen ari gara, eta horrek gure elkarlana txalotzen eta animatzen du. Atzo bertan, honako mezu hau jaso genuen: *Mila esker boletinak pasatzen dizkiguzulako. Ondo idatziak daude: zentzuzkoak dira, literaturarik gabe, esan behar diren gauzak edo kritikak esaten dira baina tonu onean... Zorionak horrengatik eta egiten ari zareten lana praktikoagatik. Mila esker.*

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Elikagaien banaketa modu zuzenean auzoetan egiten jarraitzen dugu. Gaurkoan, banaketa etxez-etxekoa izan da. Datorren astetik aurrera, boluntario guztien eskaintzak kudeatuz, banaketak astean 1-2 egunetan zehar egiteko asmoa dugu.

Ekarpen ekonomikoari dagokionez, 125 pertsonen egindako diru-sarrerak 9 egunetan 7.187€ko kopuru batera iristeko aukera eman digute.

Ostalaritzari dagokionez, Gandarias eta Pandora tabernek egunero janaria ematen jarraitzen digute. **Telefono mugikorren** beharra izaten jarraitzen dugu.



13. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Hurrengo egunerako Pilulak. *¿Ba al dakigu zeintzuk diren etxerik ez duten pertsonak? ¿Zein behar dituzten? ¿Zein eskubide? ¿Zein amets? ¿Zein gaitasun? ¿Zein laguntza eskaini dezakegun? Galdera hau zuzenduta aurkezten ditugu Hurrengo eguneko Pilulak.*

2. PILULA

GASTRONOMIAREN HERRIAN... ¿GOSEA?

Gure gastronomia herriaz harro sentitzeko oinarri nagusietako bat da. Hainbat *Michelin* izar dituzte gure jatetxeek, baita sukaldari ezagunak eta turismoa ziztu bizian erakartzen duten pintxoak ere. Sukaldaritza ikasketen artean nagusi den *Basque Culinary Center* ere Donostiarra dugu, eta bilera publiko guztietan gastronomiak bere premiazko lekua izaten du gure herrian.

Eta gastronomiak indar garrantzitsu hau duen lekuan, hain zuzen ere, **ehundaka lagunek gosea dute.** Ametsen eta aukeren gosea izateaz gain, pertsona askok elikagaien beharra dute egunero gure hirian. Egoera hau, zuzena ez izateaz gain, lizuna iruditzen zaigu.

Donostian, benetakoak diren behar larri hauek eta gastronomia ezagunak elkarbizitzen duten hiri honetan, **ez dago gizarte jangela publiko bakar bat ere.** Orain arte, Caritas izan da behar honi erantzuna ematen zion erakundea, baina datorren abenduan leku honek ere itxi egingo du. Onartezina iruditzen zaigu karitatearen eskuetan uztea gure bizilagun guztiek duten behar larri eta eskubide argi hau.

Pertsona guztien eskubidea bermatzeaz gain, gizarte jangela bat irekitzeko proiektua **iritzi publikoak txalotu** dezakeen arrazoi argi bat da. Horrexegatik, instituzioetan dauden erantzuleentzako ere zentzuzko proposamen bat dela uste dugu, diru-kosteari dagokionez jasangarria delako eta, orokorrean, donostiar guztion baiezkoa irabaz dezakelako.

Eskaera hau, **oso premiazkoa da.** Labirinto burokratikoan sartu gabe, proposamen hau konfinamendu egoera honetan sor daitekeen proiektu bat da, baita amaitu ere. Bide batez, hirian Gizarte Jangela Publiko bat ireki izanak bere arrakasta eta inaugurazio argazkiak ekar ditzake eta, batez ere, erabiltzaileen esker onak. Sinets gaitzazue, esker hauengatik bakarrik, proiektuak argi eta garbi pena merezi duela esaten dugunean.

Gizarte Jangela Publikoa, orain.

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.